

TREBAKUNTZA 2013-09: ARTE/-RAINO

Sarritan ikusi izan ditugu gaztelaniazko "hasta" esateko euskaraz erabiltzen ditugun kasuak (*arte* eta *-raino*) nahastuta. Ikus ditzagun adibide batzuk:

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Herritarrak kexatu egin dira, **hondartzara arte** doan autobusa beti berandu heltzen delako.*
2. * *Gure herritik **hiriburura arte** joan beharra dago erosketak egitera.*
3. * *Gaueko **hamaiketaraino** luzatu zen Hirigintza batzordearen bilera.*
4. * ***Goiz erdiraino** egoten da deiei erantzuten eta gero hasten da bulegoko zereginak egiten.*
5. * *Arkitektoak egindako proiektuan, iturri zaharreko **bidegurutzerara arte** heltzen da errepidea.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Salbuespen gutxi batzuk alde batera utzita, gainerako kasu guztietan, "**noiz arte**" denbora adierazteko erabiltzen da, eta "**noraino**" lekua adierazteko.

Beraz,

Oker: "*Arratsaldeko **zortzietaraino** zain egon ginen*".

Zuzen: "*Arratsaldeko **zortziak arte** zain egon ginen*".

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Oker: "Mendi **puntara arte** iritsi ginenerako, zerua lainotuta zegoen".

Zuzen: "Mendi **puntaraino** iritsi ginenerako, zerua lainotuta zegoen".

Kontuan izan, hala ere, batzuetan NORAINO kasua denbora adierazteko erabil daitekeela: *gaurdaino, oraindaino...*

Beste batzuetan, leku eta denbora nozioak nahiko nahastuta agertzen dira: *Noiz arte? Madrilerara arte* (Madrilerara heldu arte).

1. Herritarrak kexatu egin dira, **hondartzaraino** doan autobusa beti berandu heltzen delako.
2. Gure herritik **hiribururaino** joan beharra dago erosketak egitera.
3. Gaueko **hamaikak arte** luzatu zen Hirigintza batzordearen bilera.
4. **Goiz erdira arte** egoten da irakurtzen, eta gero hasten da bulegoko zereginak egiten.
5. Arkitektoak egindako proiektuan, iturri zaharreko **bidegurutzeraino** heltzen da errepeidea.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99